

Jose Ezenarro Roteta

*Zarautz,
Gipuzkoa
(1921-2014)*

Aurkibidea

Biografia



Zarautzen jaioa, nahiz eta gurasoak Getaria eta Zumaia-koak izan. Txoko taberna gainean bizi izan zen. Rosa Buenetxearekin ezkondua.

Zintak

ZAR-006

- **Proiektua:** Zarautz Hizketan - Zarauzko euskara eta ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Data:** 2004-12-01
- **Iraupena:** 90 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

Pasarteak

1. Eskolako kontuak; irakasle erdaldunak

- **Erref:** ZAR-006/003
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:04:08. **Bukatu:** 00:05:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Eskola publikoetako irakasleak erdaldunak izaten ziren, baina fraideetan irakasle abertzalea izan zuten. Mutilak bakarrik egoten ziren bertan. Ez zen erraza piper egitea.

2. Don Isidro Otaegi irakaslea

- **Erref:** ZAR-006/004
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:05:38. **Bukatu:** 00:06:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Irakaslea: don Isidro Otaegi. Lan handia egiten zuen gazteentzat. Ezer ez zegoen tokian frontoia eginarazi zien. Dirua zuen jendeari eskatu eta gauza asko antolatzen zituen: txirrindulari lasterketak, adibidez. Gerra garaian ihes egin behar izan zuen.

3. Gaztetan gurasoei lagundu behar lanean

- **Erref:** ZAR-006/005
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:06:50. **Bukatu:** 00:07:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Etxeko zaharrena zenez, eskolatik ateratakoan gurasoei laguntzera joan behar izaten zen, tailerra zuten eta. Merienda hartu eta plazara joaten zen tximiloak hartuta.

4. Jolasak eta bestelako gaiztakeriak

- **Erref:** ZAR-006/006
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:07:47. **Bukatu:** 00:09:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Jolasak: korrika, salto egiten, tximili-kuarteka, tiroka... Sasoia zenean, sagarrak eta gereziak lapurtzen zituzten. Parranda gutxi egindakoa da.</p>

Transkripzioa

- Ta zertan jolasten ziñaten? Gogoratzen ahal zea zertan... zertan jolasten ziñaten? Ze jolas edo?

- [Alkarri] korrika o bankuan jarrita bankuan zenek salto haundiyo in ta... E? Bankuak... holako... [gure etxian] aldrebesak zian bankuak. Bat bestian gaiñian jarrita zeñek iten zun salto gehiyo, hortzak hautsi arte batzutan. E? Ta hantxe! Tximili-kuarteka nola izaten zan? Ezkutatu ta bat bestia... Ta tiroka zeaik gabe, pistolik gabe, pim-pam-pum. [Ze itezu parre neekin]?

- Ta gaiztakeriak iten ahal zenituzten? Halako...?

- Nola gaixtakeiyak?

- Lapurretan ta hola ibiltzen ziñaten?

- Ez. Sagar deboan-ta bai, e! Sagar denboan ta geexi denboan ta hor bai. Hori, hori... hori bai! Hortan onak giñan, geexitan ta sagarretan-ta onak! Bai, bai. Korrika saiua iten giñun, e! baiña ez... sekula harrapatu baserritarak. Batian saio earra iñaazi niyon bati! Errota zaharretikan Antunianoko taillarreaño segitu zin. Ni sagarrez beteta neola ta ni dzi! taillarrea ta harrapatu ez! Korrikalaiya zan, baiño ez zin harrapatu! Ze... Bildurak ze iten dun /iteun/, e? [Ze zenbatek segitzen zigun guri...!] Pentsa zazu [...]. Bueno! Gure bizimodua [...]. Gero, ezkondu ezkeo, ba, horrek esango dizu nere bizimodua zer dan: lana in eta illuntzetan soziedadea jun, tertuliya in ta etxea. Parranda gutxi in det nik, e! Batez. Noizik behin afaiya o baten despedida zala o bat soldautza jun ber zula, haren despedida zala... [...] Baiña, bestela, [...] etxian laga ta afaita noa...

5. Gerra garaian gose handia pasa zuten

- **Erref:** ZAR-006/010
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:14:03. **Bukatu:** 00:16:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

15 urte zituen gerra hasi zenean. Gerra garaia nola bizi izan zuen. Justu-justu libratu zen gerrara joatetik. Gose handia pasatu zuten. Ahal zena egiten zuten eta inoiz baserritarrei ogia lapurtu ere bai.

6. Gaztetako lehenengo lanbideak

- **Erref:** ZAR-006/011
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:16:00. **Bukatu:** 00:18:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:

Aitak ebanisteria zeukan. Non ibili zen lanean. 14 urterekin egiten zuen lana nolakoa zen. 16 urterekin enkargatu egin zuten karamelu-fabrika. Fabrika non zegoen.

7. Aisialdia: gaztetan pilotan; gerora kuadrillarekin sagardotegietan

- **Erref:** ZAR-006/012
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:18:30. **Bukatu:** 00:20:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

<p>Kirola. Pilotan eta korrika egiten zuen, baina gerra-garaian dena bukatu zen. Ze frontoi zeuden: Errustaneko okindegikoa, Zinema, fraideetakoa.. Behin 18-20 urte ezkerro mutil-kuadrillak elkartu eta sagardotegietan ibiltzen ziren. Tokan jolasten zuten. Galtzen zuenak erronda ordaindu behar zuen.</p>

Transkripzioa

- Eta, orduan, e, zure gazte denboran kiroleako zaletasunik eta ba al zeon hemen Zarautzen?
- E?
- Kiroleako zaletasunik ba al zeon hemen Zarautzen?
- Ez det ondo...
- Kirolik iten al zan?
- (Emaztea) Aber kirol-gauzikan iten zan? Deportia!
- Deportia?
- (E) Bai.
- Ahal zunak ahal zuna iten zun.
- (E) Pelotan, pelotan.
- Ni pelotan, korrika 're bai iten nun, batzokitikan. Geo, gerra etorri zanian hura 're dana bukatu zuen ta gelditu in behar.
- Gerra garaian dana bukatu in zan.
- Dana bukatu zan hamen, K.O. Hamen ez zan ezer 'e gelditu. Hamen beste

ezer ez zan. Danak frentian, ta zean ta. Hamen ez zan ezer iten, ezertxo 're ez zan hamen: ez arraunik eta ez zeik, eta. Ezta ezer 'e! Lehen, gure gazte denboan, hoixe pelotan, fubolian, kostan, ta deportia dexente in giñun.

- Ze frontoi zeuden Zarautzen? Bat esan dezu, frontoiak, zuek in zenutena?

- Bai. Geo beste frontoia bazan, e, Noizbait haundiya. Baiña horrea iñor ez zan sartzen. Hori Erdoiztaneko panadeikua zan ta, itxiya eoten zan hura. Ta geo bestia Zinema, han, han bazkaldu ta seituan hara.

- (E) Ta geo Frontoi Txikiya nola dao...

- Geo Frontoi Txikiya daona.

- (E) San Francisco kalia? Hori 're bai.

- Frailetako frontoia han, ta toki askotan geneuzkan. Terreno hotan geuk indakua 're bai. Pelotan asko iten giñun, ahal giñun bitartian. Ta geo kanbiatuz, kanbiatuz, kanbiatuz, ba, orduan ohitura zeon, ta behin hemezortzi hemeretzi urtekin o, hogeitaz urtekin, launak iten zian, ta saardoteitik saardoteira. Saardotei asko zan. Ta saardoteira jun ta han tokan ibili, tokan.

- (E) Ez dakit jakingo duen zer dan toka...

- Bai, ez. Bueno, nei. Esplikatu, bai, nik ez dakit. Nola da toka?

- Toka da, zea bat, e, txabola bat bezela, irikiya, ta zea bat daka, burdi bat forma hontan peatuta daona, ta zeak, burdizko zea batzuekin. Bota, ta hua jo behar urrutian, aitzen? Holako ixtuak zian, ta tokan. [...] zan, afiziyo haundiya zan.

- Nun zeuden tokak? Nun zeuden toka...

- Saardotei danetan.

- (E) Asko, toki askotan.

- Bai, bai, ta han juntatzen giñan zortzi, igual hamar laun, batzuek kuadrillak izaten zian bostekuak. Gu gutxienez bagiñan zortzi o beatzi ta, toka ronda, zenek gutxina jotzen zitun, paatu in behar.

8. Igande arratsaldeetan joaten ziren sagardotegira

- **Erref:** ZAR-006/014
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:22:20. **Bukatu:** 00:24:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

<p>Sardina zaharrak eraman eta parrillan erretzen zituzten sagardotegietan. Igande arratsaldeetan joaten ziren sagardotegira, astean zehar berandura arte lan egiten zen eta. Kantuan ere egiten zuten. Bizimodu alaiagoa zen ordukoa.</p>

9. Emakumerik ez zen sartzen tabernetan

- **Erref:** ZAR-006/015
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:24:40. **Bukatu:** 00:25:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

- Aisia » Taberna giroa » Elkarte gastronomikoak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

<p>Emakumezkorik ez zen joaten sagardotegietara eta tabernetara ere ez. Elkarteetan ere hasieran gizonak bakarrik sartzen ziren.</p>

10. Diru-kontuak: pezeta batekin egiten zuten festa

- **Erref:** ZAR-006/016
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:25:21. **Bukatu:** 00:26:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Sagardo baso batek txakur txiki bat balio zuen. Orduko dirua. Duroa zeukana aberatsa zen. Pezeta batekin egiten zuten festa.

11. Hirigunea eta inguruak nolakoak ziren

- **Erref:** ZAR-006/017
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:26:43. **Bukatu:** 00:27:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

<p>Kuadrilla inguruko lagunek osatzen zuten. Zein zen hirigunea. Inguruan baratzeak eta soroak zeuden.</p>

Transkripzioa

- Ta zure kuadrilla, kuadrilla, nungo kuadrilla zan, auzokua kuadrilla? Kale igualeko...

- Bai, gehienak itxe aurreko, urre samarrekuak izaten zian kuadrillakuak.

- (E) Eske herriya paso nibeletikan honea zan, e.

- Bai, beste herriik ez zan.

- (E) Geo Azken Portu, eta geo dana baatzak, baatzak eta kale baserriyak.

- Behin, Azken Portu, [...] pasa ezkeo, zea, bi o hiru itxe bakarrik zian hor. Taberna Azken Portukua, Otzarretaneko itxia, ta Azken Portuko taberna, han bukatzen... Horrei deitzen ziyoen Azken Portu, Azken Portu. Ta geo handik aurea futbol kanpuak, Aritzbatelde, ta beste dana sorua ta baatza, hamen ez zeon. Herriya zan trenbiretik honea, hau zan herriya. [...] Ta orduan launak izaten zian danak ingurukuak, etxen aurrian bizi zianak, goian bizi zianak, eskolan hasitakuak, danak. Gutxi giñan ta! Herriya txikiya zan, ta jende gutxi.

12. Igandetan apaintzeko dirurik ez

- **Erref:** ZAR-006/018
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:27:45. **Bukatu:** 00:29:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Igandetako apaintzea: larunbatean alkandora kendu eta garbitu eta igandean berriz jantzi. Aitaren jornalarekin bakarrik ez zitzaien askorako iristen. Oinetakoak. Anai-arrebak adin ezberdintasun gutxikoak.

13. Hondartzan gehienak kanpotarrak

- **Erref:** ZAR-006/019
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:29:49. **Bukatu:** 00:32:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Aisia » Oporrak

Laburpena:

6 urterako bazekien igerian. Herritar gutxi izaten zen hondartzan, gehienak kanpotarrak: Valladolid, Madril.. Nola janzten ziren emakumeak. Aberatsak albornozakin joaten ziren urertzeraino, eta aldatzeko kasetak izaten zituzten. Bañeruak.

14. Lau-bost taxi herrian

- **Erref:** ZAR-006/020
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:32:55. **Bukatu:** 00:35:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

<p>Moila orain bezalakoxea zen. Non ibiltzen ziren igerian. Kotxerik ez zen ibiltzen orduan, Getariatik korreoa eta jendea geltokira ekartzen zuena bakarrik. Baina lau-bost taxi bazeuden herrian.</p>

Transkripzioa

- Ta lehen moilla esan dezu, moilla juten ziñatela.
- Gu moilla.
- Eta oso diferentia izango zan orduan moilla? Uaingo moilla...
- Igual-igual.
- Igual dao, e? Bai, e?
- Igual-igual. Gure garai [...]. Uain, orduan txalupa gehio uain baiño, baiña

gu beste aldian ibiltzen giñan, e, paetan berrian, han, beste partian, igeiyan, txalupa tartian ez giñun ibiltzeikan, baiño beste aldian. Eun guztiya hantxen, kamiyotikan salto in ta, [...] murkil in ta hantxe...

- Orduan kotxeik ez zan pasako. Ordun kotxeik...

- Ordu batetikan o bi ordutik behin. Zabalan automobilla, zea etortzen zana, Getaitikan korreuakin. Ta jendiak hantxe, estaziyuan, ta arrantzaliak baldin bazakaen diruik paatzeko, arraiakin etortzekuan, haiei ekartzea. Bi ta hiru ordutik behin, goixian behin ta hola Zabalan automobilla, hura ikusi bakarrik iten giñun. Automobilla orduan? Bixikletikan ez geneuzkan ta, automoilla nola eongo zan, ba?

- (E) Ta taxiya 'e plazan. Musika jotzen dan tokiyan.

- E?

- (E) Taxiya, Jose Mantsua ta Lazkano ta...

- Taxiya bai, taxiya. Zarautzen herriya izateko taxi dezente zeon. Lau, bost taxi bazaben garai hartan, e! Oain gehio dabe, baiña orduan lau bost taxi bazian, e, bazian.

- (E) Lazkano, Jose Mantsua.

- Jose Mantsua.

- (E) Geo bestia...

- E? Lazkano.

- (E) Lazkano.

- Antzuolaneko Lazkano. Beste madrileño bat 'e bazan...

- (E) A, bai, bai, Mari Fran Fernandezek aita.

- Geo, andria hil zitzaiona.

- (E) Bai, Fernandezek aita, bai.

- Bestia Zapatero deitzen ziyoena 're, gerra denboan alde in zun harek 'e. Iñok, ez zuna sinisten ezerrekin, ta Ezkizoko Ama Birjiña atea zanian, "[...] ba al da?", ta, "bai, zeoze izango dek, zeatik hara jendia jun dana errezatzen ta...". Taxiya, auto, trenik eta besteik ez zeon ta taxiyan jun behar Ama Birjiñai Ezkizokea ikustea. Ta dana sinisten zun ordun. [...] zapaterua bai. Txertubinekuak 'e bazakaen...

- (E) Txertubinekuak 'e bai, bai.

- Zarauzko herriya, zea izateko, taxi asko zan.

15. Hirigunea eta inguruak nolakoak ziren.

- **Erref:** ZAR-006/021
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:35:04. **Bukatu:** 00:36:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Hirigunea noraino iristen zen. Behin Gran Hotel-a ezker dena txaletak ziren. Bizkondearen etxea: villa San Jose.

Transkripzioa

- (E) Bai, porke Frailetatikan hauntza 're ez zan ezer, e. Dana txaletak eta dana, zea, Frailetako... San Francisco kaletikan herrira, paso nibeletikan herrira, eta...

- A, bai, oain... Behin Gran Hotela ezkeo...

- (E) Gran Hotela, hotela haundiya, ta... geo dana...

- Gran Hotela ezkeo dana txaletak.

- (E) Dana txaletak.
- Txaleta hemen, txaleta han, ta dana... hutsa.
- (E) Dana aberats jendiana, e.
- Han Mendilautan 'e danak, bueno...
- (E) Bai, "unos chalés"...
- Oaintxe bakarrik [...] desierto txikiya o gelditzen dan hori, zeaik gabe, itxeik gabe. Baiña orduan 'e txaletak kantidaden. Hamen terrenua besteik ez da! Geo perretxikuak bezela hasi zian hemen itxiak iten, perretxikuak bezela. "Oi, noiz in due itxe hau?", [...].
- (E) Euromarko hortan 'e... Hori zan Villa San José. Dana terrenuak eta txalet bat.
- Bueno! Hori dana... Hor zea bakarrik zeon, Bixkonde bakarrik zeon, etxe haundi bat barruan, beste dana amurallatuta, [...]. Euromar zan hori dana. Itxe bakarra zeon, palaziyo bat.
- (E) Bakarra, Villa San José, besteikan ez.
- Bestela ez eon ezer.
- (E) Hor, neuk ezautu det, hori dana.
- Ezer ez zeon.

16. Igandero musika izaten zen eta udan ia egunero

- **Erref:** ZAR-006/023
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:36:55. **Bukatu:** 00:38:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Gazteek ondo zekiten dantzaz orduan. Igandetaz bakarrik egoten zen musika. Udan sarriago: uztailen bi egunetik behin eta abuztuaren egunero. 11 urterekin "botones" lana egiten zuen hotelean eta handik ateratakoan plazara joaten zen.

17. Neskatan nola egiten zuten

- **Erref:** ZAR-006/024
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:38:43. **Bukatu:** 00:40:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Neskatan. San Sebastianetan Urdanetara joan eta neska-laguntzeak egiten zituzten. Gizonak izaten ziren dantza eskatzen zutenak. Inguruetara ere joaten ziren erromerietara: Meagasera, Getariara.. Zer moduz konpontzen ziren getariarrekin.

18. Udaletxeko dantzari txikien taldea

- **Erref:** ZAR-006/026

- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:41:50. **Bukatu:** 00:44:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

<p>Gerra aurretik udaletxeak dantzari txikien taldea zeukan. Udan, jaiero meza nagusira joaten ziren udaletxekeokin batera eta ondoren plazan dantzak egiten zituzten. Arratsaldean San Pelaion egiten zituzten dantzak eta afaria ematen zieten. Astean duro bat eta alpargata pare berria ematen zien udaletxeak. Beasaingoa zen dantza-maisua.</p>

Transkripzioa

- Eta, festak eta ziharo diferentiak izango zian, Euskal Jai euna ta, San Pelaio, ta San Pelaiuak eta...

- Euskal Jaitan?

- (E) Berdintsuak, hola, jai hoiek, e, San Pelaio ta...

- Jantzi, zean... Guk giñaukan gauza bat ona Zarautzen gerra aurretik, e! Ayuntamientuak grupua zakan dantzai txikiyana, grupo bat, e. Zarautzan jendiak gastatu iten zun ayuntamientuan. Ta jaiero, udan, e, neguan ez, udaan, meza nagusira juten giñan alkatiakin ta ayuntamientu guztiya ta grupua dantzai txikiyana. Ta geo plazan dantzak, hiru o lau plazan, hiru lau o bost, zea, dantzaldi in eta alto. Ta arratsaldetan, udaan, udaan San Pelaioa, nahiz zean ez, zea izan ez, San Pelaioa juten giñan. Han berriz 'e dantza in, afaia ematen ziguen, astian duro bat. Han eoten zan ama zai [...] kentzeko. Duro bat ematen zigun ayuntamientuak, e! Ta astero-astero alpargata paria berriya. Neurrira 're inda, gaiñea, e! San Pelaioko zeara jun, alpargateruana, ta neurrira inda ematen zien. Ta, durua. Ta noizian, garaitan ematen zigun pastelak eta. Hor uain ayuntamientuan tokiyan, hori hutsa zan, ayuntamientua erre arte hori hutsa zan.

- (E) Ayuntamientua Plaza Musikan zeon.

- Ta han gaiñian ikasi giñun dantzan ta. Geo horrea etorri zan ayuntamientua, erre in zan, erre in zuen, plazan zeona, ta hor eoten giñan. Ta geneuzkan maixua beasaindar bat, urte guztiyan hamen apopillo,e! Eskolan zea eakusteko, dantzan ta eakusteko. Ayuntamientua orduan, ondo [...], e! Bai, bai, bizimou ona pasa deu. Gose pixkat, baiño... Gerra garaian pasa zan, ta.

19. Zinean plikula "pikante"-ren bat ikusiz gero, eskolan zigortuta.u

- **Erref:** ZAR-006/028
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:45:30. **Bukatu:** 00:47:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Zineak non zeuden. 3 txakur txiki balio zituen. Antonianoetako zinera joaten ziren gehien. Cantinflasenak, bakeroenak edo mexikarrenak izaten ziren pelikulak. Eskolan "vale de disciplina" izaten zituzten eta behar ez zen pelikularen bat ikusten zutenean kendu egiten zizkieten. Bale asko zituztenean jai ematen zieten.

20. Orduko diziplina zorrotza: zinearekin lotutako gertakizuna

- **Erref:** ZAR-006/029
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:47:55. **Bukatu:** 00:50:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Diziplina askoz zorrotzagoa zuten orduan. Eskolan errespetu handia zegoen irakasleekiko. Behin maisu batek bi ikasle kalera bota zituen. Haien senitartekoak kargu hartzera joan ziren, baina irakasleek indar handia zuten.

21. Medikuak etxez etxe ibiltzen ziren

- **Erref:** ZAR-006/032
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:54:59. **Bukatu:** 00:57:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:

Gerra aurretik mediku bat baino gehiago zegoen herrian: Zinkunegi, don Leandro eta don Pako. Mediku partikularrak ziren, urtean hainbeste ordaintzen zitzairen. Farmaziak non zeuden.

22. Zirkulo karlistan gertatutako pasadizoa

- **Erref:** ZAR-006/035
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 01:00:12. **Bukatu:** 01:03:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Fraideen aurrean, zirkulo karlista egon zen. Eraikin handia zen; frontoia zuen atzeko aldean, billarra.. Behin zirkulura pixka bat "epelduta" joan; eta, don Karlosi burla eginez, txapela buelta emanda, barruko forru gorria bistan zela, jantzi egin zuten. Frontetik etorritako karlistak joan zitzaizkien gero kargu hartzera.

23. Erljioaren indarra Zarautzen

- **Erref:** ZAR-006/037
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 01:04:04. **Bukatu:** 01:05:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Zarautzen ia denak fededunak ziren orduan. Ama Birjinaren bederatziurrenean eliza goraino beteta egoten zen. Aste Santuko debekuak. Arratsaldea libre izaten zuten eta mozkorrik handienak orduantxe harrapatzen zituzten.</p>

24. Zer jaten zuten

- **Erref:** ZAR-006/038
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 01:05:54. **Bukatu:** 01:07:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Gerra aurretik haragi gutxi jaten zuten. Babarrunak, garbantzuak, lentejak, makailoa edo antxoa jaten zuten gehienetan. Gosaltzeko esnea. Baserritarrek ibiltzen ziren etxez etxe esnea saltzen.

25. Kooperatiba: nola sortu zen, eta bilakaera

- **Erref:** ZAR-006/039
- **Iraupena:** 0:04:46. **Hasi:** 01:07:10. **Bukatu:** 01:11:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

<p>Amak kooperatibatik erosten zuen janaria. Bere aitak-eta sortu zuten lehenbiziko kooperatiba bera jaio aurretik. Dendariak elkartu eta janarien prezioak igotzea erabakitzen zuten tarteka. Orduan gazteek beraiek beste denda bat sortzea erabaki zuten. Merkeagoa zenez, poliki-poliki jende ugari bildu zuten. 500-600 bazkide izatera iritsi zen kooperatiba.</p>

Transkripzioa

- Eta, karo, baserritarrek beaiek babarruna ta esnia ta dana eukiko zuen...
- Dana!
- Bai, ba. Eta zure amak, zu txiki-txikiya, zu jaiotakuan, zure amak, e,

erosketa eta nun iten zitun, babarruna ta nun eosten zun?

- Koperatibatik gehiena.

- Koperatiba.

- Koperatiba jarri zuen, gure aitak eta jarri zuen koperatiba.

- Hemen, denda hori, koperatiba.

- Ez.

- (E) Uain dana ez, hori bota in zuen. Hor zeon, e! A, aurrena koperatiba nun eon zan?

- Aurren-aurrenengo koperatiba hemen gure aitak eta jarri zuen zortzi launen artian, oain nola dao kutxilleia, zea...

- (E) Iglesias.

- Bai.

- Iglesias nola? Denda hartan. Hoiek, gazte hoiek, Arin ta nere aita ta zortzi o omen zian. Ta, hamen lau bost denda zian handi samarrak. Ta iten zuen tartian-tartian juntatzen zian laurak, esaten zuen "hi, litro oliyua perro txiki bat iyoko al deu?", eta "bai", ta handik pixkatea "azukria iyoko al deu beste perro txiki bat?". Ta, gaztiak bestiak esaten zuen, "[...] eskubideikan. Ez da iyotzeik zea, ta hoiei gogua eman diyoela ta ez dakit zer ta badakit zer ta. Geuk jarri behar geniek denda bat", "nola ingo deu?" ta, "hara, dirua sortuta". Sortu omen zuen bakoitzak hamarda euro. Ta denda hura libre, ta "zein jarriko deu?" ta, "Lino"...

- (E) Juaristi.

- Juaristineko Lino. "Hura, jarriko diau", bea gizona zerbitzen ta. Gauzak eosi, hasi sartzen ta jendia, merkio. Geo hasi zian soziyo iten, zea, eman ezin, tokiik ez. Orduan pasa zuen uain kaja ahorros nola dao, zean, ixkiñan...

- Ta ze urtetan iriki zuen Iglesiaseko...

- Hori? Ba, gure aita oaindikan ezkondu gabe. Ni baiño... ezkondu baiño pixkat lehentxio. Bea zeon, numero kuarto zun zean numerua, ta.

- Oseake, zu jaio aurretik.

- (E) Aurretik.

- Zu jaio aurretik, ordun?

- Bai, baiño geo hura, han hartuta, hor ezautu nun. Oain nola dao kaja ahorros ixkiñan?

- (E) Farmaziko beste aldetikan?

- E?

- (E) Zein kaja de ahorrosa?

- Kutxa!

- Kutxa, bai.

- Botika Matias baiño lehen jarri zuen.

- (E) Lehen? A!

- Han eon zian Sinforosa ta Petra ta... lau bost neska jarri zituen ordun, e!

- (E) Ya, ya. Hura nik ez nun ezautu.

- Ta ordun berriz oaindikan aujia haundiyo, auje haundiyo. Ta ordun pentsatu zuen, oain zea, linterner txikiyaneko ta itxe hoiek nola daude Rekondoneko onduan, itxe bat? Zea, hori tintoreia Lakuana zan, ta iñor ez zan bizi. Ta pentsatu zuen hua erostia, bihian lokal bat, linterner txikiyan ta dendak eta hantxe, oain ajentziyak eta jarri ditue. Bihian beste lokala, hirugarrenguan ta beste lokala ta itia. Ta hemengo tabernaia ikusi zuen, zean, dendaia, gehio ez zuela salduko ezer 'e. Bostehun ta seirehun soziyo ta gehio in zian, e, koperatiban. Ta, ordun bat engaiñatu zuen, ta itxe hau iñ arazi ziyoen.

- (E) Uain koperatiba nola dao...

- Itxe hau dana zorpian, dirua, koperatibak in zun itxia dana goitik behera. Fijatu, berrogeita hamabi, berrogeita hamabi pezta baliyo zun, zeak, alkilerrak hillian. Ta iñok nahi ez zun, garesti zala ta. Gu nola zea haundiya

giñan, famili haundiya, jun in giñan, ta zorretan sartu zan. Azkenian beste presidente bat urtian [...] esan zun, "hau ez zioz sostenitzeikan sosisuan kontura". Guk maizterrak bezela ez giñun ezer 'e paatzen, ez fatxadak eta ez teillatuik eta ez ezer ez, alkilerren. Orduan pentsatu zuen saltzia. Orduan erosi giñun pixua, merke gaiñea, mou onian. Baiña orduan kooperatiban, urtian azkenian, libru bat ematen zizuen juten ziñanian. Ematen zizuen ze eosi zendun, libruan bi, bat beak gordetzen zuen, ta bestia zuk. Zu itxea juten ziñan, eamaten ziñun kontuak eta urtian azkenian zenbat erosten zendun zinko por zientua.

- (E) Bai, hori nik ezautu det.

- Ofizina jun barroa, ta zea batian...

- (E) Poltsa batian, sobre batian...

- Horrenbeste eosi dezu aurten, poltsa batian horrenbeste diru. Jolin, jendia!

26. Kooperatibaren inguruko kontuak

- **Erref:** ZAR-006/040
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:11:56. **Bukatu:** 01:13:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Denetarik egoten zen kooperatiban: hasieran janaria bakarrik, baina gerora gauza gehiago ere bai. Gerra garaian izena aldatu zioten: cooperativa la Amistad.

Transkripzioa

- Ta, danetik eoten zan han ez?

- Bai.

- Fruta ta babarruna ta...

- (E) Ez, ez.

- Danetik. Hor danetik jarri zuen geo, telak eta dana.

- (E) Fruta ta ba al zeon? Geroa jarri zuen fruta? Geroa, ez?

Lehendabizikotikan? "Comestible, todo comestible".

-"Comestible y"...

- (E) Denda luze hura zanian, kooperatiba zanian luze hura?

- Bai, tela 're bai.

- (E) Tela 're bai? Bai. Ontzi gauzak bai; bai, bai, bai.

- Karnizeia aldamenian, ta panadeia beste aldamenian.

- (E) Bai, baita, bai, bai, bai.

- Hor dana in zuen, aizu, ze panadeia, ta nolako panadeia, ta...

- (E) Bai, bai, bai, bai.

- Karnizeia, oain ez al dao karnizeia?

- (E) Bai.

- Ez, oain dana bat inda.

- (E) Ordun, ordun... dana bat. Oain barroa sartu behar dezu dana hartzeko.

- Bai, ba.

- (E) Ordun aparte zeon karnizeia.

- Ordun ikaragarriya jarri zuen, haundiya, haundiya. Bodega 're badaka harek, itxe aiñako bodega daka, gauzak edukitzeko.

- Ta, gerra garaian eon zan kooperatiba hori?

- (E) Bai.
- Horrek izena zun leheno Cooperativa Laguntasuna, ta gerra denboan aldatu ziyoen izena, Cooperativa La Amistad, ta hemengo jendiak. Ta geo berriz, zeak pasa zian, oain berriz Laguntasuna.
- Ez, oain da, e, lfa o, ya, osea, beste... beste... "como si fuese Eroski. Así, está crecido", beste..., grupo haundiyagua da.
- Ba, oain grupo bat da, baiña berriz 'e Laguntasuna.

27. Arraina iritsi bezain laster kalean salgai

- **Erref:** ZAR-006/041
- **Iraupena:** 0:04:17. **Hasi:** 01:13:14. **Bukatu:** 01:17:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

<p>Berdura plazan baserritarrek egoten ziren, baina bazeuden bi harategi eta arrandegia ere. Orduan kalean saltzen zuten arraina. "Expresa" deitzen zioten arraina saltzen zuen emakumeari. Baldekada arraina ekartzen zuen buruan Getariatik. Santa Barbara egunean txerri feria egiten zen eta bisigu ederrak ekartzen zituzten. Baporeak Gran Sol-era joaten ziren egunero bisigutara.</p>

28. Gabonak eta errege eguna

- **Erref:** ZAR-006/043
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 01:19:23. **Bukatu:** 01:20:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Gabonak nola ospatzen zituzten. Afaria: aza-olioak eta bisigua. Batzuek turroia ere izaten zuten. Konpota ere jaten zen. Oparirik ez zuten izaten. Errege eguna ospatzen zen.

29. Inauterietan karrozak

- **Erref:** ZAR-006/044
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 01:20:40. **Bukatu:** 01:21:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:

<p>Inauteriak ere ospatzen zituzten gerra aurretik. Karrozak egiten ziren.</p>

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com